

PRENTSA OHARRA

Luxenburgok Irizar ie bus modeloko zero isurpeneko sei autobus elektriko erosi ditu

Luxenburgon, 2018ko ekainaren 28an

François Bausch ministroak, Garraio Ministerioko zerbitzu teknikoak, Voyages Emile Weber-ek eta Irizar e-mobilityko ordezkariak ofizialki aurkeztu dituzte aurten entregatuko diren hamar autobus elektrikoetatik lehen seiak.

Lehen sei unitate horiek **Irizar ie bus** modeloko 12m-koak dira, bi aterekin. Ibilgailuek usb atakak eta Eco Assist sistema dituzte. Azken hori gidariari denbora errealean laguntzeko sistema bat da, eta aldi berean gidaritza optimizatzen laguntzen du, kontsumo energetikoa murriztuz eta autonomia handituz.

Autobusak 290 linean ibiliko dira, hau da, Mersch (Gare) eta Luxembourggo (Terminus: Badanstalt) lotuko dituzte 5:20 eta 23:43 arteko ordutegian. 200 km baino gehiagoko autonomia dute, eta beraz, 16 orduz gidatu daitezke zirkulazio handiarekin.

Ibilgailuak gauz kargatuko dira Bissen-eko kotxe-toki berrietan Combo-CCS2 kargatzeko hargunea duten sei kargadoreren bidez, eta horien hornitzailea ere Irizar da.

Aipagarria da Irizarrek erabaki duela Luxenburgoko hirian kalitatezko salmenta ondorengo zerbitzu eskusiboa ezartzea Bissengo kotxe-toki berritik hurbil. R&M pakete pertsonalizatuak eskainiko ditu eta aditu teknikoek eta han bertan kontratatutako pertsonak kudeatzen dute, hartara aberastasuna eta enplegua sortuz.

Beranduago 18 metroko lau unitate entregatuko dira, kotxe-tokietan bakarrik kargatuko direnak.

Erabat isilak eta zero isurpenekoak dira, eta beraz, ibilgailu hauek Luxenburgoko hiriak iraunkortasunaren eta hiriaren nahiz hiritarren bizi kalitatea hobetzeko egindako apustuan kokatzen dira.

Autobus modelo hau 2014. urteaz geroztik Europako hamar hiritan dabil egiaztatutako autonomia, efizientzia eta fidagarritasunarekin.

Informazio gehiagorako:

Ana Eceiza,
aeceiza@irizar.com
Tel.: +34667181833

Alberto Gonzalez Pizarro
agonzalez@irizar-emobility.com
Tel.: + 33 673464441